

BIZKAI'KO FORUA

Pedro Puxana

Gure D. Pedro Puxana'k Bizkai'ko Forua euskeraz ipiñi du.

Lan gotorra, lan "bizkaitarra". Bizkaitarren lanak lan gotorrak izan oi bait dira. Oroi, Azkue bat, Labairu bat...

Gauetik goizera, liburu mardul-mardul bat eskuratu digute: BIZKAI'-KO FORUA: 540 orrialde, infolio. Bilingüe. "Traducción por primera vez al vasco". Egillea, esan degu: Pedro de Pujana y Aguirregabiria.

* * *

"Foru Zaarra" uste genduan guk; bañan, ez. Berria da, 1526'gn urtekoa. Ez bait du axola. Berriak osorik dakar bere barruan Zaarrak zekarren guztia. Eta egokiago taxutua, gañera.

* * *

Ez degu, dana irakurtzeko betarik izan. Bañan bai, itzultzallearen lanari buruz, iritzitxo bat emateko aña.

Liburuaren idiki-aldi batean eskuak VIII Tituloaren Lenengo Legea ekarri digu aurrera. Onela dio Tituloak:

"De la forma y modo de proceder en las causas criminales...".

Eta Itzultzalleak:

"Zigor auzietako egieraz eta jardukeraz...".

* * *

Gure iritzia, euskerari buruz, oso ona ta baikorra da. Euskera ondo ezagutzen duanaren erregali ederra dala gure adiskide Puxana'ren lana.

Bañan gauza auetan itzulkeraren elburua ondo ezagutzeaz gañera, liburuaren gaiaren ezaguera ere oso bearrezkoa baít da —batez ere Liburuaren

gaia naiko teknikoa danean— eta naiko teknikoa bait da Foruaren eta Legearen izaera, Liburuaren kritikatzko bat egin bearrean arkitzen geranean, guk alderdi oni elduko diogu.

* * *

Amicaliter. Itz bitan. Izkuntzaren garbitasunari-purismoari-atentzio geiago eman ez ote zaion, Liburuaren balore teknikoari, Legeen mamiari baño; beti-beti textoaren examiña gauzaren mami-mamiraño iritxi ez ote dan...

Ikustagun.

* * *

EL FUERO DE VIZCAYA

“TITULO OCTAVO: De la forma et orden del proceder en las Causas Criminales, y de los casos de oficio de Juez.

Ley I.—En qué casos se puede proceder de oficio y prender, sin que se llamen los delinquentes so el arbol de Guernica.

Primeramente dijeron que habian de fuero, uso, y costumbre, franqueza, y libertad, que su Alteza, ni Juez, ni oficial suyo no pueda hacer, ni mandar hacer de oficio, ni a pedimiento de delator fiscal, o promotor, ni de prestamero, ni de merino pesquisa, ni inquisicion alguna en Vizcaya sobre delito, ni maleficio alguno, salvo sobre

robos y hurtos,

fuerza de mujer,

muerte de hombre extranjero, que no tenga pariente alguno en la Tierra,

andar a pedir por los caminos y fuera de caminos, que les hagan cortesias para vino, que le llaman en el Fuero pedires,

mujeres que son conocidas por desvergonzadas y revolvedoras de vecindades, y

poner coplas y cantares a modo de libelo difamatorio que el Fuero las llama profazadas, y sobre

alcahuetes (que el Fuero llama rachaterias); y sobre

hechiceros y hechiceras. Y contra los que caen en

crimen de heregia et en casos de

laesae maiestatis; et contra los que hacen

falsa moneda; y contra los que

falsan, y raen moneda, et

crimen de nefando contra natura.

Ca sobre estos tales puede haber pesquisa et inquisicion, y proceder contra ellos a captura y prision, sin los llamar so el arbol de Guernica, por

los treinta dias que manda el Fuero, aunque el delito sea tan grande que se pueda poner pena de muerte, y en caso que no los pueda hacer prender, pueda proceder por via de llamamiento so el dicho arbol”.

* * *

“Zortzigarren atala. Zigor auzietako egikeraz eta jardueraz, eta Epai-kariari egintzaz dagokiozan egiteez.

I Legea.— *Lege ausleak egintzaz zein kasutan auziperatu eta atxillotu daitekezan, Gernikako Zugazpera deitu бага.*

Lenengo esan eben: Foruz, usuarioz eta frankezaz eta Erri-eskubidez ebela, edozein lege-auste ta gaiztakeri dala-ta, ez Jaun Aundiak, ez aren Epaikariak, ez aren Kargudunak ezin daikela Egintzaz azterraldirik, ez billaketarik egin, ezta egiteko agindu, ezta Egilleak edo Fiskalak edo eragilleak edo Prestamero ta Merinuak eskatu arren bere

lapurtzea eta ostutzea,

emakumea indarrez eroatea

lurraldean seniderik ez daukan erbestekoren bat iltea,

eta bideetan eta bideetatik kanpo ardaugaitik agurka dabiltzan eskekoak (Foruan eskale deritxenak),

emakume lotsabagako ta auzo naastaille,

ta liburu zantarren antzera bertsoka ta kantaka diardenak (Foruz barritxu deritxenak),

eta estalgilleak (Foruz estalgintza deritxana),

eta gizionezko ta andrazko aziak dirala-ta

izan ezik. Eta

Fede ukatzearen

eta Erregeren aurka egindako lege austea,

ta guzurrezko dirua egin

eta dirua aizundu ta karrakatu egiten dabenen aurka,

ta sodonkeria dagitenen aurka.

Onelangoak izan ezkeru, azterraldia ta billaketa egin daitekela ta atxillotu ta presondegiratu bere bai, Foruak dakazan ogeitamar egunen buruan Gernika'ko zugazpera deitu бага, lege-austea aundia ta erio-zigorgarria izan arren bere; eta atxillotu eragin ezin badakie, Zugazpera deitze bidez egin daikela”.

* * *

Kritika

“Titulo octavo.—De la forma et orden del Proceder en las Causas Criminales y de los Casos De Oficio de Juez”.— *Zortzigarren Atala.—Zigor-Auzietako egikeraz eta jardukeraz, eta Epai-kariari Egintzaz dagokioezan egiteez”,*

“Ley1.— En qué casos se puede proceder De Oficio y prender sin que se llamen los delincuentes so el Arbol de Guernica”.— *I Legea.—Lege-ausleak Egintzaz zein kasutan auziperatu eta atxilotu daitezkean, Gernika’ko zugazpera deitu бага”.*

* * *

Delitoaz eta delitogilleaz diardu Lege onek. (“Lege-auste” ta “lege-ausle” deritzoe itzultzaileak. (“Delito” ta “delitogille” esan zezakean). Eta delitogillearen kontrako auziera “De Oficio” aipatzen du batez ere: “De Oficio de Juez”.

Bizkai’ko Foruan bi Auziera, bi Prozedura, arkitzen ditugu:

a) “de Llamamiento so el Arbol de Guernica” bata; Gernika’ko Arizpera-deiezkua; eta

b) “De Oficio” bestea; “de Oficio de Juez”.

“So el Arbol de Guernica” Korrejidoreak Gernika’n egin bearrekoa zan; eta “De Oficio”koa, Alkateak-eta errietan egiten zutena; auzi azkarragoa, xumeagoa... (“De Oficio” “delito de Derecho Natural”-edo esan legikerako; eta “So el Arbol”, “delitos de Derecho positivo” esan leikenetarako).

* * *

Itzultzaileak “egintzazkoa” esaten dio “de Oficiokoari” Juezaren egintzazkoa, alegia. Ez bait dirudi, ordea, “oficio” itzak emen esan nai duana “egintza” itzak bear bezela adierazten duanik; kasu ontan ofiziozko egintza ez da edozein egintza, egintza berezi bat baizik: instituziozko egintza berezi bat; eta olako egintzak izen tekniko bat eskatzen dute; nolana dala, “ofizio” itzak “egintza” itzak baño obeto adierazi lezakena; “De Oficio” beti ere Institutuzio bat da Errien Gobernuan...

* * *

Ondoren datorren troxoak ere ba du olako zerbait oker edo ez ain zuzen. Bizkai’ko Foruan azaltzen diran Kargodunen izen teknikoak batez ere: izen tekniko, erderazkotik nolapait euskerara itzuliak (Itzultzaile-lan txalogarriak, bañan itzen bapateko balore teknikoak puntu asko galduaz). Ikus:

Onela dio Liburuak:

“Primeramente dixeron que habian de Fuero, uso y costumbre, franqueza y libertad, que (ni)

Alteza,

ni Juez,

ni Oficial suyo, no puede hacer ni mandar hacer

de oficio

ni a pedimiento de Delator Fiscal
o Promotor,
ni de Prestamero,
ni de Merino

pesquizas ni inquisición alguna en Vizcaya sobre delito ni maleficio alguno,
salvo sobre

robos y hurtos
fuerza de mujer...”

* * *

Eta onela dio Itzultzalleak:

“Lenengo esan eban: Foruz, usuarioaz eta frankezaz eta erri-eskubidez
ebela, edozein lege-auste ta gaiztakeri dalata

ez Jaun Aundiak,
ez aren Epaikariak,
ez aren Kargudunak, ezin daikela
agintzaz

azterraldirik ez billaketarik egin, ezta egiteko agindu, ezta

Egilleak edo Fiskalak,
edo Eragilleak
edo Prestamero
ta Merinuak eskatu arren bere,
lapurketa ta ostutzea
ta emakumea indarrez eroatea (izan ezik)”.

* * *

Gure iritzian “Alteza”k, “Jaun Aundia” ez baño “Jaun Gurena” izan
bearko luke;

bañan ondoren datorren “Epaikaria” edo “Jueza” ez da “aren Epaika-
ria”, “Epaikaria” soillik baizik;

eta ondorengo “aren Karguduna”, “aren (Epaikariaren) Ofizialea” bear
du izan;

eta ondorengo “Egilleak edo Fiskalak”, “Salatzalleak edo Fiskalak”;

eta ondorengo “Promotor” ez dago gaizki “Eragille” bezela;

berdin baita ondorengo “Prestamero”;

bañan ondorengo “Merinoa” obeto “Merioa” (ala esan oi baita da) (1).

* * *

Ageri danez, VIII Tituloko 1.º Legeak Gernika’ko Aritzaren babesean
ipintzen ditu, Bizkai’an gerta ditezken, “Derecho Positivo Vizcaino”koak

(1) *n* intervocálica galduaz.

esan ditezken delitoak eta delitogilleak; eta “De Oficio” deritzan prozedurarako uzten ditu ondoren datozen amairu kasoak, geienak “Derecho natural”ekoak esan ditezkenak “Lapurtze”tik asi-ta “Kontra natura”rañoakoak; oietan izan bait liteke, besteetan galerazita dagon azterraldi ta billaketa eta atxillotze edo kartzela. Lege onetan ondo tinkatua gelditzen bait da bi Prozedura oien ez-berdintasuna —ez Juezek, ez Jaun Gurenak berak ezin berdindu dezaken diferentzia...

* * *

Eta aurrera jarraituaz:

FUERZA DE MUJER.— Itzultzalleak EMAKUMEA INDARREZ EROATEA ipintzen du. Bi formulak, bi eufemismo díra. Gauza gordin baten gordintasuna estaltzeko erabiltzen diran esaera-formulak... “Fuerza de mujer” erderaz; “Emakumea indarrez eroatea” euskeraz. Latinoak “Abductio mulieris” esaten zutena, edo-ta Biblian irakurtzen dan “violasset Thamar” eta “oppressit Thamar” .“Violasset” ori euskeraz, tipikoki ta geientan, “bortxatu” esan oi da: “bortxa”, “bortxu” edo “bortxadura”...

* * *

PONER COPLAS Y CANTARES A MODO DE LIBELO DIFAMATORIO (QUE EL FUERO LAS LLAMA PROFAZADAS).— Itzultzalleak onela bait dio: *LIBURU ZANTARREN ANTZERA, BERTSOKA TA KANTAKA DIARDUENAK (FORUZ BARRITXU DERITXENAK)*. Itz gutxitan, antziñako “Libellum difamatorium”en antzera, bertsoak eta kantak ateratzea (Foruak “Profazatuak” esaten dituanak). “Profazatuak” itz au erdera zaarreko itza bait da, gaur erabiltzen ez dana; bañan, ain zuzen, Larramendi’k bere Iztegian ipintzen duana. Begira: “*Profazador* (anticuado), *chismoso, censorador.*—*Profazar* (anticuado), *murmurar, abominar*”.— “*Profazo.*— *profazamiento, abominación, descrédito*”.— Dirudianez, “profazada” koplata ta kanta deshondragarriaren izena da: kategoria gutxiko izena, txismoso-izena... Foruan zigortua... Bertso-papera izan ditekeana; bañan baita Aozko-Literaturaren barruko Aozko koplata edo kanta ere... *Profazadak*...

ALCAHUETAS, QUE EL FUERO LLAMA RACHATERIAS.— Itzultzalleak onela bait dio: *ESTALGILLEAK, FORUZ ESTALGIN-TZA DERITXANA.*—Foruak “rachaterias” diona, itzulgilleak “Estalgin-tza” eta “Estalgilleak” dio; “rachateria” sustantibotzat artu du, otizio-izenez, alegia; ez bait da, ordea, sustantibo, adjetibo baizik; ez da “alcahuetaria” “alcauhetea” bera baizik; eta ez “maitakeri-estaltzallea” “errekadueramallea” baizik, “rekatera” = “recadera”: *retxateraa, retxaterrea, retxateria*... Alcauhetak, izan ere, bi izaera edo ariera dituzte: maitakeriak estali eta maite-minduen errekaduak eraman-da-ekarri; bañan Foruak azkeneko ariera au ofizio au nabarmendu du: “ratxateria”... *recadera*...

* * *

Ondoren datorrena, dirudianez, Foruari gero erantsitako zatia da: apendice-edo; goitik datorren aria aldatu egiten du: leen “sobre delitos” zana, orain “contra” biurtzen da. Eta onela dio: “*Y contra los que caen en crimen de HEREGIA.*— Itzultzalleak, berriz, onela dio: *ETA FEDE UKATZEAREN (AURKA)*, Eta ba dirudi, Foru Zaarrari XVI gizaldian erantsitako zatia dala: Espaiñiako Inquisizioaren itzalean mamitua —herejiaren kontrako asmo ta gogo beroan antolatua—. Foruaren idaz-fetxa —1526— “a dos” dator Inquisizioaren gauzarekin.

Gauza bera adierazten du baita Herejiaren ondotik datorren zatiak ere; ola bait dio: “*Et en casos de laessae Maiestatis*”; eta euskeraz, “*eta Erregeren aurkako lege auste*”; itz onetan, herejiaren problemarekin naastua Unibertsidadeetan zebillen “tiranicidioaren problema” aipatzen ta ikutzen bait da *-tiranacidium*, ots! “*crimen laessae Maiestatis*”: Erregearen erailketa... gure itzultzalleak “Erregeren aurkako lege-auste” dion delittoa, alegia... gure itzultzalleak delitotari “lege-auste” esaten bait dio, garbi-garbi, “delito” esan bearrean... lege-auste oro delitu balitz bezela, “delittoa” “lege-auste” xume bat baño zerbait grabeago bait-da, zigor aundia merezi duan lege-austea alegia: *delittoa*.

Lekuona'tar M.